

Iñaki Antiguiedad

Hiztegi berritutik argi luzeetara

Zerbait ari da mugitzen burujabetza-
ren aldekoen artean. Batzuen eta
besteen esanetan igartzen da, hitze-
tik ekintzarako jauzia ikustear bada-
go ere, are gehiago ekintza hitzak
dituen esangura desberdinak kontuan
hartuta. Inoiz ez bezalako gauzak ari naiz
entzuten, hiztegi berritu baten ondorio
edo. Ziklo zaharra oraindik agortu ez eta
berria oraindik sortu ez den blokeo egoe-
rari derrigorrezko aterabidea emateak
lehenengo urrats legez eskatzen duen
hiztegi berritua izan daiteke oraingo hau.
Sinistuta nago blokeoaren arazo nagusia
tuneletan, nor berean, dagoen jendearen-
gan baino gehiago tuneletan bertan
datzala; hortaz, bide berriak bilatu –eta
aurkitu– behar dira blokeoa gaindituko
badugu, inongo bidea ezin baita behin
betikotzat hartuta jainkotu.

Nire ustez, asteotan esan diren askok
egungo argazki egokia margotu dute.
Ezker abertzaletik estrategia eraginkorra
sortu eta konfiantza berreskuratu beha-
rra esaten da; bat nator, egungo estrate-
gia eraginkorra ez den seinale, bere espa-
rruan behar bezalako konfidantza
sortzeko gauza ez den seinale. Bai, 30
urteko errepresioak ez du helburua lortu
eta ezker abertzalea hortxe dago, jendar-
tean txertatua, baina denbora bereko
borroka molde nagusiak ere ez du lortu
governua konponbidera bultzatzea, eta
hau ere esan behar da. Sozialdemokrazia-
tik, euren hiztegian, subiranotasun inteli-
gentea eskatzen da, bide politiko eta
demokratikoetan perspektiba progresista
batetik erradikaltasun osoaz jardutekoa;
baina Azpeitian gauzatu dutena ez da,
inondik ere, erradikaltasun adibide.

Bai batzuek eta bai besteek indarrak
metatu beharra aipatu dute, baita polo
subiranista batera biltzea ere, jeltzaleen eta
konstituzionalisten aurrean bestelako erre-
ferentzia eraginkorra gauzatzeko, iruzur-
aldi berri bati behingoz atea itxiko dion
hitz eta erabakiaren erreferentzia ezinbes-
tekoa. Kursaaen entzundako hitzetan:
konfrontazio erreferentea, argi motzetatik
argi luzeetara pasatzea. Hiztegi berrituaren
orriak aurrera eta atzera nago pasatzen ea
polo subiranista gauzatzeko gaurkoz diren



DANI BLANGO

begi-bistako trabak, ezker abertzaleak eta
sozialdemokraziak nor bereak, gainditze-
ko konpromisoak zeintzuk izan daitezkeen
argitu nahian; baina ni neu behintzat argi
motzetan nabil oraindik ere.

Eta martxoan hauteskundeak. Ez dakit
ordurako trabok gainditzetik egongo
denentz, denboraren estuagatik. Dena
dela, bada nire usterako bestelako traba,
kontuan hartzekoa halako hauteskunde
batean. Izan ere, Gasteizko legebiltzarra
zombie politikoa bada ere hamaika neurri-
ren erabakigune ere bada, eta ezker aber-
tzaleak bertan egon beharra dauka, modu
batean edo bestean, estrategia eraginkor
batean ezinbesteko osagarri. Baina institu-
zio horretatik pasatzen diren gai askoren
aurrean ezker abertzaleak eta sozialdemo-
kraziak jarrera diferentea dute, politika
sektorialetan argi eta garbi, batak eta bes-

Autonomikoetan nor bere aldetik agertzea litzateke argiena,
elkarlana marko demokratikoaren aldeko urratsetan batez ere
gauzatzuz. Baina uda atarian izateko diren hauteskunde
europarrak aukera ezin hobea izan litezke polo horrentzat,
hiztegi berrituan Europa ipintzen baita
konponbidean laguntzaile

teak iraunkortasuna edota krisiaren jato-
rria, kasurako, *progresoa* azken batez, uler-
tzeko duten ikuspegi desberdinen ondorio.

Beraz, hauteskunde autonomikoetan
nor bere aldetik agertzea litzateke argiena,
elkarlana marko demokratikoaren aldeko
urratsetan batez ere gauzatzuz. Baina uda
atarian izateko diren hauteskunde europar-
rak aukera ezin hobea izan litezke polo
horrentzat, hiztegi berrituan Europa ipin-
tzen baita konponbidean laguntzaile. Hor-
txe eman lezake poloko erreferentzia poli-
tikoaren neurria, polokideak Herri bat
definitzen duten politika sektorialetan gaur
gaurkoz talkan izan arren. ■